Argizaiolak

Gure elizetan familiko hilobiari argi egiteko erabiltzen ziren argizaiolak urte gutitan suntsitu dira. Jatorriz bazitekean hobiratzeak eliza barnera igaro zirenetik Sortuak izatea, XIII-XIV. garren mende haietan, Gipuzkoari dagokionez. Gure probintzian oro zabaldu zen eta bere mugetatik hat Bizkai erdialdera arte. Behar bada, lehen elizatik kanpora, hilerrietan, eraikitzen ziren hilarri biribilen ordez. Bere esan nahiak, ordez garbi adierazten du ***argizariohola.***

Hilarri biribilen gizatiar forma bera agira da argizaiolarik gehienetan, bai heldu lekuan eta bai hurualdean. Horrez gainera, haiek bezala, erakusten dituen apaingarriak ere marrazki geometrikoez ainera, lora eta izartegiko irudiak agerizen dira: Lauburu, arrosa, eguzki irudiak, eguzki lora eta abar, hilarrietan bezala, aintzinako erlijioan erroizen diren irudiak. Gainera, ezagutzen diren argizaiolarik zaharrenak gotiko estilodun dibujoak dituzte.

"Hilarri biribilak" zeritzan artikulu hartan (irailaren 29an argitaratuan) adierazten nuen bezala, hilarri hoiek gorpuei lur ematea eliz barrura pasatzen denean bukatzen da. Hala dirudi, guzien eritzia ez bada ere. Baditeke lehen lehenagotik hilen arimen alde eliza barruan egiten ziren ototzetzan argizaiola edo "fuesa" erabiltzea, hilerrietako harri biribilen antzeako irudia erabiltzearren. Itxura hori dute apaingarritzat dituzten marrazkietatik. Bestalde, denboraz eta tokiz koinziditze horrek, aipatutako artikulu hortan agertzen nuen bezala, argizaiolak eta "fuesak" hilarri biribilen ordez sortu zirela dirudi. "Fuesa" bera erdarazko ***fosa*** *(fhobia) besterik ez bada. Hau segurtatzeko, egia esan, ikerketa sakonagoak behar dira, egiaren funtsa eritsi hortatik urrun ez badabil ere. Bestela zelan esplikatu mugazandiko Ifar Euskal Herrian argizaiolarik ez ezagutzea? Zelan adierazi Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako hilarri biribilak guziak Erdi arokoak izatea? Bestalde, Nafarroa dago bitartean, geroxeago bide berbera hartuko zuena, Gaztelaren menpeko bihurtzeaz.*

Argizaiola bera, kasik Gipuzkoako fenomenu soila izatea bera ere beste arrazoi bat dugu aintzinako hilarri biribilen ordezko izatearena. Bertan sortua zelako Bizkai erdialdera arte zabaldu zen, baina Nafarroa geroago hasi zenez, bestelako joerak hartu zituen: "Fuesa", saskitxo, xerbilla eta abar. Batzuek dioten bitasun horren kontra datorrela uste dut. Hoien eritziz, hilarrietan harri biribilak jartzen ziren garai berean erabiliko ziren eliza barruetan argizaiolak, "fuesa"k eta abar. Baina, horrela ulertzen ez dena zera da, zergatik kanpoko hilarri biribiletan batasun hori Euskal Herri guzian eta zergatik ez eliza barruko gauzetan? Horren arrazoi bakarra, garai desberdinetako aginduegatik eta politikazko menpetasun desberdinetatik bakarrik aurkitu genezake. Horregatik iraun dute hilarri biribilak ifarraldean gure egunokarte eta horregatik ez da ezagutu han argizaiolarik. Beste argibiderik ez dugu aurkitzen.

Tamalgarria izan da behar bezalako ikerketa sakonak egin aurretik gure elizetatik argizaiolak baztertzea, beren inguruan zuten ritoez gainera zentzu estetiko bat eskaintzen bai ziguten. Katalogatzerik osatuena Luis Pedro Peña Santiagok 1961 eta 1964. urteetan egin zuena da, ***La "argizaiola" vasca*** *izenez Auñamendi argitaldariak 1964an argitaratua. Gainera, lan honetan, argizaiola bide, elizkizunen ohiturak ere jasotzen ditu; adibidez, ezaugarriak dira Idiazabal, Itxaso eta Garingoak; Lazkaon hilobiaz nola jabetzen diren, Amezketan famelико kontratua nola egiten zen, aldabarrek argiz hilen garbikunde ustea nola zuten eta abar. Mila xehetasun tipi horiek dira lehena ezagutzearen lagungarri. Horrez gainera, argizaiola, herri artea estudiatzeko ere gauza egokia zen. J. Caro Barojak zionez, bere hedadura mugatuak ere, tokian tokiz kontuan edukitzeko desberdintasunak ditu.*

Beren usariozko bete beharrik nagusiena, oraingo kandelena bezalakoa zen. Baina, arimaren argi egiteari hain ohol apainak gertatzea bera zer esan nahi handikoa zen herri batentzat, bizitza eta heriotzaren misterioan gogoetak bide sortutako arte agerpena zenez.

Argizaiolak eta "fuesa"k hilarri biribilekin duten kidetasuna ikusteko, irakurleak begira beza L.P. Peña beraren ***Arte Popular Vasco*** *(Ed. Txertoa. Donostia, 1977) liburuan 174 eta 175. orrialdeak. Batez ere, behekaldeko "fuesa"k bi alderdietan dituen buruak argi erakusten dute.*

Dena dela, gure herriak berekiko sortu dituen arte balioetan garrantzitsua dugu argizaiola.

Juan SAN MARTIN

La "argizaiola" (tabla de cerilla), utensilio de madera para enrrollar la cera que sirve para iluminar la sepultura familiar en la iglesia, en muy pocos años han ido cayendo en desuso. Quedaran muy pocas parroquias rurales donde aún se conserva. La función de estas tablillas decoradas fue la misma de los hacheros, candelabros o velas. Su origen es muy posible que se remonte a la época en que los enterramientos pasaron al interior del templo, allá por los siglos XIII-XVI, en lo que respecta a Guipúzcoa, provincia donde se generalizó su uso extendiéndose a zonas limítrofes de Vizcaya, probablemente sustituyendo a la estela discoidea. Las "argizaiolak" más antiguas van decoradas con líneas de estilo gótico.

Las formas antropomorfas de la estela están presentes en las empuñaduras y cabeceras de la "argizaiola" y su variante la "fuesa". Además, como aquellas, ostenta motivos ornamentales geométricos, florales y astroláticos: Lauburus, rosetas, signos solares y la flor de cardo relacionada con el culto solar; decoraciones que reflejan, como en las estelas, reminiscencias de religiones primitivas.

Tal como expuse en mi artículo "Hilarri biribilak", del día 29 de setiembre, el uso de la estela discoidea desapareció en las vascongadas al pasar los enterramientos al interior del templo.

Es seguro de que las oraciones por las almas de los difuntos se hicieran en el interior del templo desde tiempos antes de los enterramientos, pero no hay testimonio de la "argizaiola" o la fuesa. Sin embargo, la última, como indica su nombre, es la imitación de la fosa del cementerio al exterior. El hecho es que coincide el uso de la "argizaiola" con los cambios cronológicos en áreas donde los enterramientos pasaron al interior del templo. Pero hay un razonamiento básico, y es que en fuesas, canastillos, simples rollos de cera, "argizaiolak", "saskitxoak", etc., no existe el concepto unitario que encontramos en las estelas discoideas en toda la geografía, y ello es debido a una interpretación de la tradición; motivando que los objetos a suplir respondieran aisladamente por la discontinuidad en la aplicación de la norma, a la hora de interpretar, esto demuestra por qué no se ha usado "argizaiola" en el País Vasco continental, donde los enterramientos siguieron siempre al exterior, y por que se perdió el uso de la estela discoidea en época medieval en estas provincias.

Advierto que no todos compartirán esta hipótesis, que a nuestro juicio nos parece la más aceptable.

Ha sido una lástima que en muy pocos os hayan desaparecido las "argizaiolak" de nuestras iglesias sin haber realizado sobre ellas un estudio exhaustivo, tanto en su entorno ritual como en su sentido estético. La catalogación más completa se la debemos a L.E. Peña Santiago, realizada entre los años 1961-1964, y que se publicó bajo el título La **"argizaiola" vasca** (Ed. En esta obra, además, se recoge una descripción ritual de algunos pueblos como Idiazabal, Ichaso, Garingoa, etc.; la "toma de la sepultura" de Lazcano; la representatividad de la mujer sobre la "sepultura", en Andivia; el contrato familiar según la pertenencia, en Amezketa; la purificación para la purificación de los difuntos, en Aldaba, etc. Por otra parte, la "argizaiola", quedó patente, que ha sido una interesante pieza en el arte popular medieval, que como bien indicó Julio Caro Baroja en **Los Vascos**, "dentro de un límite, presenta variaciones bastantes muy dignas de tenerse en cuenta".

Trebiño, Araba al da?

Trebiñoko auziaren berri hamaika bider izan dugu, aspaldiontan batez ere Komunikabideetako zenbait bitarteri esker —guztietan ez, jakina!— erreibindikapen baten azken ekintzak zeintzu izan diren entzun eta irakurri ahal izan ditugu. Aintzinako arazoari hautsa kendu zaio berriro gainetik, konterri deritzaion lurraldearen ardura bere gordintasun osoaz ikus dezakegun. Trebiñoren burruka burokratikoa hautsak ostera ere estaliko ez ote duen beldur naiz, haren eskubide guztiei ostikadarik ikaragarrien bezain ixilena ematen zaielarik.

Mutikotan "Geografia e Historia de España" estudiatzean Trebiño, ***"Condado. Territorio de Burgos enclavado en la provincia de Alava"****, genuela ikaserazi zitzaigun. Mugaketa hau zela eta asmamenak, nirea behinik behi, Konterriko bizimodu feudala zekarkidan gogora, harresi atzean ikus zitekeen muño gaineko gazteluan kontean eta bere gortelariak nabari nintzakeelarik.*

Geografia harek ez zigun —noski— konterriko biztanleen erreibindikapenaren albisterik ematen. 221 k.2 dituen Trebiñoko Konterria bi udalek osatzen dute: La Puebla de Arganzón eta Trebiño. Azken honek 46 herrixka biltzen ditu bere judikzioan, hauetariko gehienak 50 biztanle eukitzera iristen ez direnak.

Mende honen hasieran biztanleen kopurua 4300 zen; 1910.ean 3.558 eta gaurregun 2.500 inguru izango dira Konterrian bizi direnak. Hauetatik 495 La Pueblan eta 350 Trebiñon. Populazioaren beherakada hau migrapenari zor zaio gehien batez. Trebiñoko hiritik 20 kilometrora den Gasteiz aldera zuzendu da aspalditik trebiñoarren gizajarioa.

Lurraldeko toponimiari bagagozkio euskal-iragana soma daiteke nonahi: Ajarte, Albaina, Arana, Argöte, Armentia, Arrieta, Basauri, Imiruri, Laño, Marauri, Mesanza, Obekuri, Ogeta, Ozana, Pariza, Sardso, Uzkiano, Zurbitu... herrixketako izenak ditugu.

Eta hauetako andre-gizonek euskal abizena daramate heuren nortasunagirietan. Brontzezko Haroan Albaina ondoko "El Montico" muñoan leize artifiziala egin zuen gizon ezezagun hura gaurregungoen arbaso zaharra daukagu. Nortasunaren sustraiak, beraz, ederki ondo errotuak aurkitzen dira.

Mutikotan erabilitako Geografia harek ez zizkigun —ez— Trebiñoren xehetasun hauek jakinerazten.

Simankasetako Artxibategian diren datu batzuek adierazten dutenez Trebiño herria 1.160 urtean izan zen sortua, Gasteizko Lope Lainez infantzoi aberatsa sortzailea zelarik. Urte batzu beranduxeago, 1.194.an, Nafarroako Santxo Erregek haunditu egin zuen hiria. Dena dela, bertako lehen aipamenak hiria sortu baiño aurretikakoak ditugu, han San Fausto zeritzan monastegi bat baitzegoen. Alfontso VII eta Urraka Erreginak Naxerara aldatu zuten monastegia Clunykoari afiliatuz. Oraindik XVIIIgn. mendean baseliz batek monastegi haren izana gogoratzen zuen. 1.366.an. Enrike II.k Gaztelako "Adelantado Mayor" zen Diego Gomez Manrikeri eskaini zion Trebiño, geroago Naxerako Dukearen eskuetara iristen zelarik. Honek, nahiz eta Fernando Katolikoaren alde ez ihardun, erregeri igaro zion Konterria 1.507.an. Hala ere, trebiñoarren gogoa zein zen laster iger daiteke, historiaren hildotik ibiliz gero. Dakusagun:

Gaztelako menpean egon aurretik Araba berez gobernatzen zen; ez, baina, Foru-idatziaz, ***"sinon por alvedrio"****-z baizik. 1.417.an Anaiartekoa osatzen zuten Gasteiz, Trebiño eta Agurain batu egiten dira, 34 arautako kuaderno bat gertutzeko. Batasunaren helburua garaiko gaizkile iradoki eta zigortzea zen,* ***"evitando los muchos e enormes graves delitos que se habían cometido e perpetrado así de noche como de día".***

Anaiartekoaren helburuak ez du gaurko artikulu honetan garrantzirik azaltzen. Azpimarratu behar duguna Trebiñoko joera da, ezpairik ez. Arabako arauetara jarri nahi izan zuen bere burua, biztanleen gogoari jarraiki.

Eskolako Geografia hartan ez nuen sekulan honelako dipamenik irakurri ahal izan.

Baina ez zen herkideen asmoa bete. 1.417.an bertan Gaztelako Gortera geldituko da erantxita, Juan II.k Logoñoko Foru osoa ematen ziolarik. Bide batez, Santa Mariari eskainitako eliz bat eraiki behar zutela agindu zien trebiñoarrei, ***"con el tercio de toda la diezma de Maeztu y Vitoria".*** *Aukeraketa honen ondorioak nolakoak izango zituzten geroak esango zien Konterriko biztanleei.*

Hamaseigarren mendeko azken urteetatik Burgoseko administralgoan aurkitzen da Trebiño. Hamazortzigarrenean probintzi horretako korrejidoretzan daukagu eta 1.833 ezkeroztik, Estatuko probintzi bataketa egitean, Burgoseko menpean gelditu da Konterria.

Bitartean, lurraldearen bizitza moteltzen joan da, Administralgoak baztertu egin baitu beti laguntzaren ideia. Trebiñoaren historia modernoa, har dezakegun edozein alderditatik begiratua, jauntxokeriari erantsita aurkituko dugu. Indarrez, bortxakeriz eta engainuz, jauntxokeria guxtiek legez, erabilitako bitarteetaz baliatu dira Konterriari mamia ateratzeko, agortasunik itzelenean utzi dutelarik. Dena dela, ez zaio bizimodu berririk hasi ahal izateko aukerarik eman nahi. Honek iragan hurbileko lotura guztien etena ekarriko biatluke.

"Nafarroako herriak berak erabakiko du bere etorkizuna" entzun dugu behin eta berriz. Trebiñoko herriak aukeraketa eginda dauka. Batzuei hitzak gezi bihurtu zaizkie.

José Mari Vélez de Mendizábal

Treviño es sinónimo de reivindicación. Y lo ha sido, no desde hace unos pocos días, como alguno puede pensar, sino desde el mismo momento en que se dio cuenta del engaño a que había sido sometido, convertido en juguete y víctima de unos intereses totalmente ajenos a su propia esencia. Y de esto hace ya varios siglos.

Cuando en aquella "Geografía e Historia de España" de nuestros años infantiles se nos mostraba "Treviño: Condado. Territorio de Burgos enclavado en la provincia de Alava, se nos estaba ocultando una historia de lucha de una comarca en búsqueda de su antigua identidad.

Los 221 km2 de Treviño son repartidos entre dos Ayuntamientos: La Puebla de Arganzón y Treviño. Este último tiene bajo su jurisdicció 46 pueblecitos. De 4.300 habitantes a principio de siglo ha pasado a la mitad, aproximadamente, debido en gran parte a la emigración hacia Vitoria, que no dista más de 20 km. de la Puebla y Treviño.

La toponimia del Condado nos recuerda un indudable pasado euskaldun. Los vecinos, son los descendientes directos de aquel que labró durante la Edad de Bronce en "El Montico" de Albaina las cuevas artificiales que todavía hoy se contemplan. Raices profundas para un pueblo ultrajado.

Fundada en 1160 por Lope Lainez, rico infanzón vitoriano, ofreciendo el Condado en 1366 a Enrique II al Adelantado Mayor de Castilla Diego Gómez Manrique, para que después de pasar por manos del Duque de Nájera, Fernando el Católico quien lo cedió en aquél en 1507. Pero en 1833 da un hecho que evidencia el sentir de los habitantes de Treviño a pertenecer al ente que nunca respetaron. Junto a Vitoria y Salvatierra con los que forma Hermandad, se sentó lo que sería el cuaderno en que se recogían 34 ordenanzas en virtud a que ¡se ejecutasen las justicias, castigase y persiguiese los malhechores". Juan II, y en su nombre la reina gobernadora durante la minoría de edad Catalina de Lancaster firmó el diploma de las ordenanzas. Es, desde entonces, cuando se puede decir que las Hermandades de Alava tomaron carta de naturaleza. Y por una serie de motivos que se conocen aunque lícitos de mencionar, Treviño abandona su deseo inicial y es aquel mismo año incorporado a la Corona de Castilla. Juan II le concede los Fueros de Logroño y le ordena erigir una Iglesia a Santa María "con el tercio de toda la diezma de Maeztu y Vitoria".

Desde 1833, en que se hizo la división de provincias, Treviño fue incorporado a Burgos, si bien administrativamente figuraba en esta provincia desde el siglo XVI.

La Historia de Treviño es una que un continuo rosario de ofensas. Tales como negar el derecho a libre elección del pueblo. "Que el propio pueblo de Navarra decida elija su destino" hemos pedido repetidamente. Treviño ha expresado su deseo. A algunos les ha sido la han tornado lanzas.